

ADIERAZPEN INSTITUZIONAL PROPOSAMENA, AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Bilboko Udalak, emakumeek indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten guneak eraikitze xedez, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza-eredu askeak errealitate bihurtzeko, egitura sozial paritarioa lortzeko xedez, herritar guztien konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa dugula berresten dugu.

Herritarren bitzita kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok bere agenda politikoaren eta jardun instituzionalaren lehentasun gisa indarkeria matxistatik gabeko lurraldeak eraikitzea izan behar du, baita berdintasunean oinarritutako gizarte baten defentsa ere, non emakumeek euren burua aske sentituko duten.

Sistema kapitalista neoliberalak patriarkatuarekin duen aliantzak, azken urteotan bizi dugun krisi sistemikoak bizkortu egin duenak, emakumeen bizitzan zuzeneko inpaktu garrantzitsua izaten jarraitzen du. Horrela, aurrean ere, Bilbon indarkeria matxistaren datuek gorantz jarraitzen dute, urtarrila eta abuztua artean, 2016ko datuekin alderatuta, %30eko igoera hain zuzen. Aurrean emakume asko, eta askotan ahaztu egiten ditugun haien seme-alabak erahilak izan dira eta sexu-indarkeriako kasu asko ere izan dira, batez ere udako herri-jaietan. Ildo horretan, bereziki kezkatzen gaituzte gazteengan gertatzen diren botere-erlazioak, askotan kontrola, gehiegikeria eta, zenbaitetan, indarkeria fisiko eta sexuala barne.

Bitartean, sistemak bere gain hartzen ditu kontzeptu feministak, hauek despolitizatuz, eta edukirik gabe uzten ditu, berdintasun faltsuko egoera bat normalizatzen lagunduz. Aldi berean, indarkeria sinbolikoaren indarkeria-adierazpenek, emakumeak zapaltzen dituzten arauak ezarriz, edota indarkeria ekonomikoak, soldata txikiagotan eta lan-baldintza txarragotan islatzen dena, emakumeen aurkako diskriminazioa betikotu egiten dituzte.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, desberdintasunen sistemaren zati den heinean, ikusezin bihurtu da, alderdi pertsonalei garrantzi handiegia emanez. Baina ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk salatzea horrelako ekintzaren bat gertatzen den bakoitzean; arrazoiaren gainean jardun behar da, sustraira jo behar da.

Beraz, beharrezkoa da indarkeria-adierazpenen arrazoiaren sakonduko duen ahalegin bat egitea, emakumeen ekiteko ahalmenak aitortuz, haien erruduntasuna gaitzetsiz eta indarkeria matxistatik gabe bizi ahal izan daitezela lagunduz. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizarte-ereduaren egitura-aldaketa bat egitea; hori ez egitea bidezko aldaketa baten aldeko konpromisoari uko egitea izango litzateke.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, horri aurre egiteko bide desberdinak alde batera utzi gabe, sendo adierazi nahi ditugu Bilbo feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

ERABAKI PROPOSAMENA:

- 1.- Bilboko Udalak Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.
- 2.- Bilboko Udalak kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, Indarkeria Matxistaren aurkako Behatoki bat jarriko du martxan, erasoak identifikatu eta salatzeko, indarkeria hori ezabatzeko eta prebentzioa sustatzeko. Era berean, hiriari lotutako indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat abian jarriko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.
- 3.- Bilboko Udalak aurrerantzean “indarkeria matxista” adiera erabiliko dugu modu normalizatuan.
- 4.- Bilboko Udalak 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du, berdintasun sailaren aurrekontua handituz, udal aurrekontuaren %1era heldu arte.
- 5.- Bilboko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.
- 6.- Bilboko Udalak hezkuntza eragileei zuzeneko deia egiten die curriculum-lerroetan genero-berdintasuna sar dezaten.
- 7.- Bilboko Udaletik borroka feministaren aldeko konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.
- 8.- Bilboko Udaletik jendarte osoari ere dei egiten diogu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioetan parte har dezan.

CARMEN MUÑOZ

UdalBerri, Bilbao en Comúm

Udaltaldeko bozeramailea

AITZIBER IBAIBARRIAGA

EH Bildu

Udaltaldeko bozeramailea

FRANCISCO SAMIR LAHDOU

Ganemos Goazen Bilbao

Udaltaldeko bozeramailea